



Iritziak

Erraldoi teknologikoak

Google, Apple, Facebook, Amazon eta Microsoft (GAFAM) gisako enpresa digitalak hazteko arrazoien atzean, orain arte ezezagunak ziren bi arauen bulkada dago. Hasteko, prozesagailuen potentzia biderkatzailea da, urte tik urtera bistakoa da hauen ahalmenaren igoera esponentziala dena. Bigarrenik, kostu marjinal zeroren legea dago, alegia sarean bezero bat gehiago izateak ez du kostu gehigarririk. Horregatik, arlo hone tan teknologia mendeen duenak produktibitatean aparteko hazkunderak ditu eta bere hedakuntza kostu gehigarririk gabe bidera lezake. Beraz, teknologia arloko enpresa liderren etekinak itzelak dira. Irabazleek dena irensten dute. Ekosistema digitalak munstroak sortzen ditu.

AEBetako GAFAM boskotearen finantza balioa Alemaniako BPGa baino garaia da eta, egungo joerak jarraitu ezkerre, Europako Batasuneko produktua gainera kokatuko da hamar urte barru. Konkurrentziarako hobari gaitzietan dituzte: marka globalak, adimen artifizialeko motore handiak eta, batez ere, ikerketa eta garapenean egindako inbertsio ikaragarria (70 mila milioi dolar, ia Erresuma Batuak egindakoaren adina). Lasterketa teknologikoak ez du erdibiderik onartzen, zenbaki handien logika jarraitzen du. Horrenbestez, erraldoi hauen zenbakiak eta tamainak herrialde aurreratu askoren bolumen makroekonomikoa gaitzitzen dute.

GAFAM taldekoek erakusten dutena hau da: monopolio ahalmen izugarria, besteak beste, duten hazkunderaren bizkortasuna dela eta

Gero eta ozenago entzuten ari da baita ere eragile ofizialen aldetik enpresa hauen gaineko kontrolak eta mugak ezartzeko garaia dela. Izan ere, aipatutako enpresek milioika herritarren datuak kontrolatzen dituzte eta informazio hori guztia elkartu eta saltzeko ahalmena dute. Beren plataformak mende berriaren merkatu erraldoiak dira, eskala izugarria dute eta dauden legeak ez dira gauza merkatu horien gaineko kontrol eraginkorra bideratzeko. Horren ondorio dira enpresa hauen irabazien igoera esponentzialak eta Europako Batasunak, modu lausoan bada ere, jarraitzen eta zigortzen hasi den zerga ihesa orokortua. Baina, GAFAM taldekoek erakusten dutena hau da batez ere: monopolio ahalmen izugarria, besteak beste, duten hazkunderaren bizkortasuna dela eta, ohiko monopolio konbentzionalekin alderik ez duena.

Teknologi erraldoi hauek zatikatzearen aukera ere aztertzen ari dira. Elizabeth Warrenen -AEBetako Alderdi De-



MIKEL ZURBANO
EHU-KO IRAKASLEA

mokrataren hautagaietako bat- 2020an boterea eskuratzekotan horixe egingo lukeela iragarri du. Mahai gainean dagoen beste aukeretako bat enpresa teknologiko handi horiek beren datuak lehiakideekin partekatze beharra litzateke.

Haatik, GAFAM enpresek dituzten erronka ugarien artean bata gailentzen da, munduko ekialdeko enpresa teknologiko erraldoiek planteatzen dutena, hain zuzen. Denbora gutxian Asian hamar berrikuntza kluster global sortu dira. Eta horien artekoak dira mundu mailako liderak, izan ere Silicon Valley bosgarren tokira jaitsi da munduko berrikuntza klusteren zerrendan, Tokio, Seul, Shenzhen eta Pekinen atzean geratuta. Munduko erdigune teknologikoa zein ekonomikoa Pazifikoko aldean birkokatzen ari da eta 5G bezalako teknologia estrategikoak han garatzen ari dira. Munduko lidergo teknologikoa auzitan dago eta Donald Trumpen erreakzio traketsak eta protekzionistek ez dute errealitate hori saihestuko. Posizio geoekonomikoen lehiak nolabait balazta lezake GAFAM enpresen monopolioaren kontrako uhin berria. Nolanahi ere, horrek guztiak erakusten du XXI. mendeko merkatu teknologikoak zein urrun dauden Adam Smith klasikoak iragarritako merkatu lehiakorreko "esku ikusezina"-ren arautik. Esan gabe doa, mende berriko ekonomia ulertzeko neoliberalak ez diren bestelako paradigmak behar dira. ●